

## ATZERRIRA BIDAIATZEN BADUT, ETIKETAK AURKITUKO DITUT BESTE HERRIALDEETAKO GASOLINA- ZERBITZUGUNEETAN?

Etiketa berriak Europar Batasuneko 28 estatu kideetan, EEEko herrialdeetan (Islandia, Liechtenstein eta Norvegia), eta Mazedonia, Serbia, Suitza eta Turkian ezarriko dira.

## ERRESUMA BATURA BIDAIATZEKO ASMOA DAUKAT. BREXITAREN ONDOREN, ETIKETATZE-BALDINTZA HORIEK EZARRIKO DIRA?

Erresuma Batuak erabaki beharko du nola aplikatuko diren Europar Batasuneko arauak Brexitaren ondoren. Hala ere, ibilgailu berriei produkzio-lerroan jarriko zaizkie etiketak; hau da, Erresuma Batuak merkaturatu sartzeko ibilgailu guztiek etiketa izango dute.

## ERREGAI AZ HORNITZEAN EGIN DAITEZKEEN AKATSEI BURUZ

Gasolinazko ibilgailuen erregaiaren betetze-lepoa txikiagoa da gasoliozko hornigailuetako mahukaren ahoa baino. Bezeroek gasolinazko ibilgailuetan gasolioa botatzea eragozten du horrek, baina ez du galarazten norbaitek bere gasoliozko ibilgailuaren tanga gasolina nahi gabe botatzea, nahiz eta, gasoliozko ibilgailuetan, "Diesel" jartzen duen etiketa izan betetze-tapoiaren edo tangaren taparen inguruan.

Bezeroen ardua da euren ibilgailuetan (gasolinazkoak edo gasoliozkoak) erregai zuzena sartzea. Komunikatu honetan, ez da gasoliozko ibilgailuetan nahi gabe gasolina botatzen duten bezeroen kasua jorratuko. Etiketa berriek eta komunikatu honek helburu bakarra dute: bezeroei jakinaraztea ibilgailu jakin batean erregai zuzena erabiltzea egokia dela.

*Dokumentu hau ACEA, ACEM, ECFD, FuelsEurope eta UPEI erakundeek egin dute. Erakunde horiek Europako ibilgailu-fabrikatzaileen (bi gurpileko ibilgailuak, automobilak, furgonetak eta ibilgailu astunak) eta petrolio-erregaiaren finketa- eta horniketa-sektoreen ordezkari dira. Dokumentu honetako informazioa estatu kide bakoitzak 2014/94/EB Zuzentaraua ezartzeko emandako lege nazional espezifikoaren mende dago.*



*Dokumentu honen itzulpenaz ANFAC, ANESDOR, AOP eta UPI erakundeak arduratu dira. Erakunde horiek Espainiako ibilgailu-fabrikatzaileen (bi gurpileko ibilgailuak, automobilak, furgonetak eta ibilgailu astunak) eta petrolio-erregaiaren finketa- eta horniketa-sektoreen ordezkari dira.*

# ERREPIDEKO IBILGAILUETARAKO ERREGAIEN ETIKETAK

## KONTSUMITZAILEENTZAKO INFORMAZIOA

### INFORMAZIO OROKORRA

Europa osoan kontsumitzaileei euren ibilgailuetarako erregai egokia aukeratzeko, Europar Batasunak adostu du ibilgailu berriek eta erregai-zerbitzuguneez etiketatze-baldintza berriak bete behar dituztela. 2018ko urritik aurrera, erregai-etiketen multzo berria, bakarra eta bateratua erabili beharko da Europar.



- Etiketa horiek leku hauetan ipiniko dira:
- Ibilgailu berrien betetze-taparen edo tangaren taparen inguruan.
  - Ibilgailu berrien erabiltzaile-gidaliburuetan. Halaber, ibilgailuaren multimedia-gunean eskura dauden gidaliburu elektronikoetan ere agertu ahal izango dira.
  - Sarbide publikoko erregai-zerbitzugune guztietako hornigailuetan eta haietako mahukaren ahoetan.
  - Ibilgailu-kontzesionarioetan.

### ZER IBILGAILUK BETE BEHAR DUTE ETIKETATZE-BALDINTZA HORI?

Etiketak ibilgailu berri hauetan jarriko dira:

- Ziklomotor, motozikleta, triziklo eta kua-trizikloetan.
- Turismoetan.
- Merkataritzako ibilgailu arinetan.

- Merkataritzako ibilgailu astunetan.
- Autobus eta autokarretan.



## IBILGAILU GUZTIEK BETE BEHAR DUTE BALDINTZA HORI?

Ez. Europako legeriaren arabera, 2018ko urriaren 12tik aurrera lehen aldiz saldutako edo matrikulatutako ibilgailu berriek soilik izan beharko dituzte etiketak.

Ibilgailu-fabrikatzaileek ez dute gomen datzen etiketak ibilgailu zaharragoetan jartzea. Laguntza edo informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan tokiko banatzailearekin.

## NOIZ ERAMAN BEHAR DIRA ETIKETA HORIEK IKUSGAI EUROPAR BATASUNEN ESTATU KIDEETAN?

Europar Batasuneko herrialde guztietako ibilgailu berriek eta sarbide publikoko erregai-zerbitzuguneetako hornigailuek (gasolina, gasolioa, hidrogenoa —H<sub>2</sub>—, gas natural konprimatua, gas natural likidotua eta petrolio-gas likidotua) etiketak jarrita izan beharko dituzte, kontsumitzaileek

ikusteko moduko leku batean, 2018ko urriaren batetik aurrera. Epe hori nahitaez bete behar denez, ibilgailu-fabrikatzaileak eta erregai-zerbitzuguneak lehenago hasiko dira etiketa horiek jartzen.



## NOLA FUNTZIONATZEN DUTE ETIKETEK?

Etiketa ikusizko tresna bat da, kontsumitzaileei euren ibilgailuan erabili beharreko erregai egokia aukeratzeko laguntzeko.

Zure ibilgailuaren etiketa erregai-hornigailuan jarritako etiketarekin bat datorrela egiaztatu beharko duzu, besterik ez.

## NIRE IBILGAILUA ELEKTRIKOA BADA, ETIKETA BEHAR DU?

Bai, baldin eta zure ibilgailua hibrido-elektrikoa bada, erregai egokiaz hornitu beharko duzu eta; hau da, etiketa kontuan hartu beharko duzu.

Gaur egun, etorkizunean ezartzeko, komunikatu honetan deskribatzen diren antzeko etiketak ari dira diseinatzen, bateriadun ibilgailu elektrikoetan eta haiek birkargatzeko azpiegiturretan ipintzeko asmoz.

## NOLAKOAK DIRA ETIKETA BERRIAK?

Erregai-mota bakoitzerako etiketa espezifikoak daude: gasolina, gasolioa eta gas-erregaiak (esaterako, hidrogenoa):

Gasolinarako erabilitako etiketa zirkulu bat da (hartan, E letra gasolinaren bio-sagai espezifikoetarako dagokie):

### GASOLINA MOTAKO ERREGAIK



Gasoliorako erabilitako etiketa karratu bat da (hartan, B letra gasolioan dauden biodiesel-osagai espezifikoetarako dagokie, eta XTLk diesel sintetiko esan nahi du, hots, petrolio gordinetik ateratzen ez dena):

### GASOLIO MOTAKO ERREGAIK



La etiqueta utilizada para los combustibles gaseosos se representa con un rombo:

### GAS-ERREGAIK

